



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

126. zenbakia

2022ko uztailak 8 – uztailak 21

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Euskal soziolinguistika ikerketa Sociolinguistics Symposium-ean, Ganten

Uztailaren 13tik 16ra, Ganteko Unibertsitateak antolatutako 24. Sociolinguistics Symposium-ean parte hartu du Soziolinguistika Klusterrak. Mundu mailako soziolinguisten topaketa nagusia da berau eta Soziolinguistika Klusterreko ikerlari Maialen Iñarrak bi komunikazio aurkeztu ditu bertan.

Gazteen ahotan entzun da euskara gehien Villabonako kaleetan

[Tolosaldeko Ataria] Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren neurketa egin du herriko kaleetan eta euskaraz jardun dute behatutakoen %51,5ak; aurkezpena egin dute Subijana etxean.

Ikerketak

Bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa sustatzeko deialdia

[Unibertsitatea.net] Bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko ikerketa deialdia egin dute Bertsozale Elkarateak eta EHUko Mikel Laboa Katedrak. Bertsolaritza izan behar da ikergai nagusia, baina, edozein jakintza alorretatik abiatuta.

Hitanoa: atzo, gaur eta bihar

[BERRIA] BERRIAk eta EHUk Komunikazioko Gradu Amaierako Lanen I. Sariketa antolatu dute. Aipamen berezia lortu du Irati Barrena Bolinagak egindako lanak.

We are on the brink of losing Indigenous languages in Australia – could schools save them?

[The Conversation] Schools can provide rich environments for supporting diversity. A 2022 poll of about 650 primary school students found they wanted to learn an Indigenous language - ahead of other, foreign languages.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Euskararen inguruko diskurtsoak eraberritu, ideia positiboak erabili eta belaunaldi berriei begira jarri

[Euskaltzaindia] Sabino Arana Fundazioak (SAF) eta Euskaltzaindiak 2030. urteko euskaldun eleaniztuna irudikatzeko mintegia antolatu dute gaur Bilbon. Horrela, SAFen egoitzak lau hitzaldi hartu ditu goiz partean.

«Jasangarritasunaren erdigunean egon behar luke euskarak»

[BERRIA] Lurraldearen plangintzak harremanekin eta, beraz, hizkuntzarekin duen lotura azaldu du Olaizolak. Euskaraz egiteko hautua komunitatearekin eta bizi eredu hobea batekin lotu beharko litzatekeela nabarmendu du.

Eskolen antolaketa, euskalduntzean gako

[BERRIA] Euskara ikasteko eta erabiltzeko prozesuan ikasleen eta irakasleen antolaketak duen garrantziaz aritu ziren atzo EHU Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatutako Eskolan euskara ardatz: ertzak aztertzen ikastaroko mahai inguru batean.

Nola elikatu hizkuntza hautua

[BERRIA] «Erderaz hobeto moldatzen den, inguru erdalduna daukan eta ustez euskararik gabe bizi daitekeen euskaldun batek zergatik egingo du euskaraz?». Egun galdera pertinentea dena hemendik bi hamarkadatarara ere izango dela uste du Garikoitz Goikoetxea Uemako teknikariak.

Nola zabandu euskal nortasuna «Super 1»-en belaunalditik «Twitch» erabiltzen duten gazteengana

[NAIZ] Belaunaldi berriengan euskal nortasunak iraungo badu, ez da inertziei esker izango, Donostian honen inguruan aritu diren Beñat Hach Embarek, Eneko Axpe eta Oihana Zamponi-Galeren iritziz.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Crida d'articles TSC 34 (2024) «Llengües, mobilitat i migracions»

[Xarxa Cruscat] La revista Treballs de Sociolingüística Catalana fa una crida d'articles per al número 34 (2023), tant sobre la temàtica de la secció monogràfica «Llengües, mobilitat i migracions», com per a la secció miscel·lània.

Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak

[EHU] Badira zenbait urte Euskal Herriko gizarte-mugimenduen analisisian murgilduta gaudela, horien osaketa, horien arteko harremanak eta bestelakoak aztertuz. Horretan genbiltzala iritsi zen pandemia.

Language, Policy and Territory: A Festschrift for Colin H. Williams

[Springer] Considers the implications of place and space for the governance of language. Presents case studies on the relationship between language and geography and public policy. Examines a variety of state and sub-state settings across a range of weak and strong minority languages.

Contrastive language policies: a comparison of two multilingual linguistic landscapes where Spanish coexists with regional minority languages

[International Journal of Multilingualism] This study compares two linguistic landscapes and the concurrent language policies of two scenarios where minority languages coexist with Spanish. On one hand, the Archipelago of San Andres, Colombia (Raizal Creole) and Valencian in the Valencian Community (Spain).

La dinamització lingüística: bases, eines i estratègies

[Xarxa Cruscat] Us inform que s'acaba de publicar el llibre La dinamització lingüística: bases, eines i estratègies, L'objectiu principal del volum és proposar bases, eines i estratègies orientades a facilitar la tasca de dinamització lingüística, principalment en el context de la llengua catalana.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Hiriak, eusten ez ezik euskarak gora egiteko oinarriak jartzen

[NAIZ] Hizkuntzen erabileraren azken kaleko neurketaren emaitzetan (Soziolinguistika Klusterra, 2021) arreta ematen du gure hiriburuetan euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren bertze hizkuntzak ia euskara adina aditzeak.

Badalab hizkuntza berrikuntzako laborategiak proiektua aurkeztu du gaur Erreterian

[Gipuzkoako Foru Aldundia] Ezaugarri berritzaileak erakutsi ditu aurkezpenean bertan, besteak beste ekosistema indartsua eta egiteko molde ez-ohikoak. Europan ez dago antzekorik.

«Bazen zaku huste horren egiteko beharra»

[BERRIA] Xan Aire Erabil kolektiboko kideari egin dio elkarrizketa Iñaki Etxelekuk.

Ossès: du sport pour les enfants dans un cadre mixte et bascofone

[Mediabask] La nouvelle association Kirola Euskara Ahoan (KEA), créée à Ossès, proposera dès le mois de septembre des activités sportives aux filles et aux garçons de six à onze ans, dans un environnement mixte et bascofone.

«Las naciones sin Estado podemos ser mucho más inclusivas»

[NAIZ] Mainer Iantzi entrevista a Eunice Romero Rivera, directora de Migraciones, Refugio y Antirracismo de la Generalitat de Catalunya en la serie sobre lenguas minorizadas.



Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

